

“LANHITZ”, EUSKARA LAN MUNDUAN

Lan arloan euskararen erabilera areagotzeko hitzarmenak



Legegintzaldi honek bete berria du bere lehen urtea, eta tarte honetan Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hainbat egitarau jarri ditu abian, euskararen normalizazioan aurrera egiteko asmoz.

Ezaguna denez, *Hizkuntza Politika Aurrera Begira* dokumentuak jasotzen dituen lan-lerro nagusien artean, bat arlo sozio-ekonomiko pribatuari dagokiona da. Hiz-

kuntza Politikarako Sailburuordetzarentzat lehentasun handikoa da alor honetan eragitea, helduaroko esparrurik pragmatikoena delako, esparru ekonomikoaren garrantzia begi-bistakoa delako, eta gizabana-koaren ikuspegitik begiratuta ere, bizitzaren tarte handi bat honetan ematen dugulako. Azken batean, hizkuntza-politikari sendotasuna eta heldutasuna emango dion esparru bat delako.

Horregatik eta beste hainbat arrazoiengatik, esparru sozio-ekonomikoan eragitea ezinbestekoa da: bai enpresetan bertan, bai eragile sozio-ekonomikoengan, baita bestelako eragileengan ere, dela euskara-planen bitartez, dela aldeko ekintza positiboaren bitartez, dela sentibilizazio-saioen bitartez.

Horretara dator, hain zuzen, *LanHitz* ekimen-programa.

Esparru sozio-ekonomikoan gara daitezkeen ekimenak baterabiltzeari begira, foru-aldundiekin eta EUDELekin elkarlanean eta Eusko Jaurlaritzako Industria eta Lan Sailekin bat eginik jarri du abian Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak *LanHitz* programa. Horrela, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoon arteko elkarlanaren garrantzia azpimarratu nahi da.

Bestalde, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren helburuetako bat izan da beti eragile sozio-ekonomiko nagusiak —enpresari—erakundeak

eta sindikatuak bereziki— esparru honetako hizkuntza-politikaren partaide izatea eta euren lankidetzeta eta bermea izanik egitea aurrera lan-munduan euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko bidean.

Hori horrela, Eusko Jaurlaritza eta enpresaburuaren elkarteek bat egin dute euskal enpresa pribatuetan euskararen erabilera zabaltzeko konpromisoan, beti ere adostasuna, progresibotasuna, borondatezkotasuna, errespetua eta lankidetzeta oinarri hartuta, besteak beste, honako hau prozesu soziala delako, eta, ondorioz, guztien ahalegina eta ekarpena behar direlako. Horren lekuko irailaren 6an, Lehendakaritzan izenpetutako hitzarmena.

Ekinbide horretan, era berean, ezinbestekoa da halaber, lankidetzeta-ildo egonkorra finkatzea EAEko sindikatu nagusiekin. Elkarrekin ikuspegiak trukatu ondoren, etorkizunari begira garatu beharreko ekimen konpartituak biltzen dituen akordioa sinatu dute Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta ELA, CCOO, LAB eta UGT sindikatuek.

Kontzertazioa eta elkarlana, beraz, ditugu *LanHitz* programaren abiapuntu.



LanHitz ekimen-programaren aurkezpena.

Euskararen erabileraren aldeko planak enpresetan

Urteotan metatutako esperientzia gidari, une honetan beharrezkoa da euskara-planak bateratu eta estandarizatzeari ekitea, enpresek eta establezimenduek errazago finkatu ahal izan ditzaten beren helburuak.

Horretarako, *Erreferentzia Marko Estandarra* (EME) deritzan taxonomia edo laguntza-koadroa izango da lan-tresna, metodologiako eskuliburuak duelarik. Bertan daude jasota edozein erakundetan euskararen erabilera eta presentziatzeko helburuak betetzeko lantzeko moduko estrategiak, era sistematiko, argi eta errazean.

Enpresa bakoitzak erreferentzia-marko hori du abiaburua, diseinatu eta garatzen dituen euskara-plan guztiak egiteko eta ebaluatzeko orduan, beti ere bere egoera soziolinguistikoa, euskara erabiltzeko borondatea eta erabilgarri dituen baliabideak aintzakotzat hartuta.

Hortaz, Marko Estandarra norbere beharretara egokitu ondoren, neurrira egindako ekintza plana lantzea da helburua, batik bat erabileran emaitzak lortzera bideratua.

Marko estandarra hiru ardatzen arabera dago egituratua:


- Erakundearen irudia eta komunikazioa: errotulazioa, harrera, publizitatea...
- Kanpo harremanak: ahozko edo idatzizko harremanak bezero eta hornitzaileekin, produktua edo zerbitzua...
- Barne harremanak: langileen kudeaketa, laneko prestakuntza...

Bestalde, ohiko lan metodologiak jarraituz, PDCA zikloa proposatzen du plana lantzeko:

Erreferentzia Marko hau, jakina, euskara planak dituzten enpresekin zein esparru honetan ari diren aholkulariekin kontrastatuta dago, eta beti egongo da aukera ekarpenak egiteko, markoa hobetze aldera.



Eusko Jaurlaritzak eta enpresaburuuen elkarteak irailaren 6an izenpetutako hitzarmena.





Eusko Jaurlaritzak eta ELA, CCOO, LAB eta UGT sindikatuek ere akordioa sinatu zuten.

"LanHitz"-ek laguntza eskaintzen du

Jakitun izanik enpresa eta establezimendu bakoitzak erabaki behar duela beretzako moduko euskara-plana, betiere, bere errealitate soziolinguistikoa, bere ezaugarriak, bere beharrianak eta bere borondatea kontuan izanda, *LanHitz*-en bidez, aholkua emango zaie enpresei, banan-banan eta zuzenean, euskara eguneroko lanean txertatzeko planak eta esku-hartzeko plangintzak nola osatu erakusteko eta proposatzeko.

Helburua da euskararen erabilera ahalik eta enpresarik gehienara zabaltzea; horretarako, lehenengo harremana Euskal Autonomia Erkidegoko mapa soziolinguistikoaren arabera, elebidun kopurua % 45etik gorakoa duten guneean egingo da 15 langile baino gehiago dituzten enpresekin.

Kopurutara ekarrita, gutxi gorabehera 1.800 enpresatako arduradunengana jotzea esan nahi du, horretarako berariaz prestatutako material eta tresnekin. Horietatik, % 75 industria sektorekoak dira eta gainerako % 25 zerbitzu sektorekoak, eta gehienak, % 60 inguru, Gipuzkoan daude.

Sustapen eta sentsibilizazio lan hau orain artean egin den ahaleginik hedapenez zabalena eta egite moduz sistematikoena da, herri-erakundeen eta eragile sozio-ekonomiko eta sozio-laboral nagusien bermeaz egiten dena.

Lan-metodologia

Enpresengana joatean, *LanHitz*-ez baliatu nahi duten enpresekiko lehen hartu-emanean, lehenengo egitekoa enpresa bakoitzaren plana egiteko oinarriko diagnostikora-ko informazioa biltzea izango da, lantokia ondo ezagutzen duen arduradun baten eskutik.

Bilduko den informaziotik abiatuta, egoeraren argazkia erakustez gain, hainbat gomendio emango zaizkio enpresari bere jardunean hizkuntza-helburuak jartze aldera. Une horretan enpresak erabakiko du zein neurriko euskara plana jarri nahi duen abian edota zein neurri jakin hartu nahi dituen lantokian euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko. Halaber, erakunde publikoek eskaintzen dituzten laguntzen berri eta lan horretan aurrera egiteko merkatuan dauden aholkularitza enpresen berri ere emango zaio enpresari.

Bestela ere enpresaren batek jakin nahi badu oso modu orokorrean euskarak bere enpresan zein toki duen eta zein lehentasun jarri ditzakeen, sarean ere izango du tresna erraz-erraza.

Prozesuarekin aurrera egitea erabakitzen duten enpresentzat zenbait laguntza tekniko eta ekonomiko aurreikusi dira, erakunde euskararen erabilera areagotzeko duten planei nahiz era guztietako ekintza onuragarriei sarbidea errazteko: lanerako tresnak, baliabide informatikoak, diru baliabi-deak, eta abar.

- Informazio eta aholkularitza zerbitzua. Besteak beste, 012 telefono-zenbakia eta *LanHitz* web gunearen bitartez arin-arin jarri ahal izango da harremanetan Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin.
- Ohiko agiri, terminologia eta esapideak jasotzen dituen banku telematikoa izango da sarean.
- Euskara-planen kudeaketarako, hau da diseinua, jarraipena eta ebaluazioa egiteko informatika tresna garatuko da.
- Euskalduntzeko eta alfabetatzeko moduluak eta trebakuntza saioak izango dira HABEren eskutik.
- Erreferentziako web gunea hortxe da, aurrez esandakoak nahiz bestelako laguntza osagarriak eskuratzeko: www.euskadi.net/lanhitz
- Laguntza ekonomikoak orain arteko bideari jarraiki, planen diseinua, garapena eta kudeaketa diruz laguntzeko.

Laguntza hauen onuradunak entitate pribatuak eta zuzenbide publikoko korporazioak dira; aurkeztutako aurrekontuaren % 70 jaso dezakete gehienez eta dirulaguntza hauek bateragarriak dira beste administrazioetatik lortutakoekin. 2006an 1.825.000 euro izan dira laguntzabide honetarako.

BI SOFTWARE PRODUKTU BERRI EUSKARAZ

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPSk) EJErekin lankidetzan bi software produktu berri lokalizatu ditu euskarara: Avanzo ikastaroak eta Inizias LOPD aplikazioa.

Avanzo ikastaroak: Interneten bidez informatika ikasteko aplikazioa da. Bost moduluko bulegotika-paketea euskaratu da: Access 2003, Excel 2003, Outlook 2003, PowerPoint 2003 eta Word 2003. Aplikazioa Avanzo learning progress SArena da eta www.avanzo.com helbidean eskura daiteke.

Inizias LOPD: Datu Pertsonalak Babesteko Legeak agindutakoa betetzeko aplikazioa da eta oso lagungarria da enpresa txiki eta ertainentzat. Aplikazioaren bidez, erraz kudeatzen dira datu pertsonalak babesteko egin beharreko guztiak; izan ere, aplikazioa erabilia, fitxategiak eta arduraduna deklaratzeko dira, aktiboak erregistratu eta zerrendatu, segurtasuneko agiria sortu...

Aplikazioa Inizias enpresarena da eta www.iniziaslopd.com helbidean eskura daiteke.

Produktuak euskaratzeko lanak Elhuyar Fundazioak eta UZEIk egin dituzte eta HPSk gainbegiratu ditu itzulpenak. Koordinazio-lana, berriz, EJEk egin du.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aspaldi ekin zion merkatuan zabalkunde handiko software produktuak euskarara lokalizatzeari.

Ildo horretatik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren 2005-09 egitasmoan ere, *Hizkuntza politika aurrera begira* izenekoan, garrantzi handia ematen zaio euskara teknologia-munduan sartzeari.

Honezkerok, hainbat software produktu eskura daitezke euskaraz HPSren web orrian: www.euskara.euskadi.net/euskara_soft: Xuxen zuzentzaile ortografikoaren bertsio guztiak, sistema eragileak (Linux eta Windows), bulegotika-paketeak (OpenOffice.org eta Office 2003), OCR produktuak, hiztegien pluginak eta kudeaketa-softwarea.

JOXE MARI ARANALDE, LOURDES IRIONDO ETA TXOMIN JAKAKORTEXARENA GOGOAN



Nori berea da zuzenbidea. Gaztelu, Urnieta eta Berastegiko herriek omenaldi bana eskaini diete Joxe Mari Aranalde, Lourdes Iriondo eta Txomin Jakakortexarena herritar zenduei, euskararen alde egindako lan itzela eskertzeko asmotan.

Lehenengo omenaldia irailaren 24an egin zen Gaztelun, Joxe Mari Arandalderen gorazarretan. **Joxe Mari Aranalde** (Gaztelu, 1933 – Donostia, 2005) apaiz, idazle, irakasle eta euskaltzain urgazlea izan zen. Bertsozale zen, eta gai-jartzaile zaildu eta zorrotza. Euskararen Aholku Batzordeko kide ere izan zen.

Bigarrena, irailaren 26an izan zen, Urnietan, Lourdes Iriondoren omenez. **Lourdes Iriondo** (Donostia, 1937 – 2006) kantari eta Ez Dok Amairu kultur mugimenduko kide izan zen. Kantagintzan ez ezik, antzerkigintzan ere nabarmendu zen.

Hirugarren omenaldia azaroaren 12an ospatuko da Berastegin, Txomin Jakakortexarenaren oroitzapenetan. **Txomin Jakakortexarena** (Berastegi, 1906– 1993). Apaiz izan zen. Gerra Zibilean gudarien kapilau izan zen eta ondoren Frantziara eta Argentinara erbesteratu zen. Hainbat lan idatzi eta itzuli zituen, bai olerkiak, saioak eta autobiografia.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hiru ekitaldietan parte hartu zuen eta *Bidegileak* bildumak Aranalde, Iriondo eta Jakakortexarena omenduei eskainitako aleak banatu zituen. Hori horrela izanik ere, ohiko karpetetan ere sartu eta zabalduko dira hiru euskaltzale handien biografiak.

OSATUZ PROGRAMA



HABEK, Osakidetzarekin elkarlanean, egitasmo berri bat jarri du oraindik orain, osasun-arloko langileei zuzendutakoa. Helburu nagusia langile horiek euskaraz komunikatzeko gai izatea da, bai lan-ingurunean eta baita hiritarrekiko harremanetan ere. Euskaltegian eta euskalduntze orokorreko

prozesuan erabiltzen diren ikasmaterialekin osagarria den programa honek osasun-zerbitzuen egunerokotan sortzen diren hizkuntza beharrei erantzuten die. Bestek beste, hiru bitarteko erabiliko ditu: Osatuz irratsaioak, Euskadi Irratiak emango dituenak, Osatuz aldizkaria eta Osatuz web gunea.

Argibide gehiago: www.euskadi.net/osatuz, www.ikasbil.net eta www.habe.euskadi.net.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia-San Sebastián, 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) / Tel.: 945 01 81 16 • e-posta: berripapera@ej-gv.es